

HAMALAU

Gizon bat (ENEKO) ahapeka abesten eraikin bateko terrazan.

ENEKO

Badu ote suizidioak berezko musikarik? Ze soinu? Ze melodia? (*Astiro dabil alde batetik bestera*) Berdin da, ez dut neure buruaz beste egin behar.

Terrazaren erdian gelditu eta beherantz begiratzen du.

ENEKO

Ene!!! Hau da hau altitudea! Barrenak mugiarazten ez dizkizu, ba!! Tira, niri bost. Zorionez, beste baten suizidioa egiaztatzen etorri naiz. Horrexetara bakarrik. Ez da notario batentzat ohiko lana, baina nire bezeroa ez da inondik ere bezero arrunta...

Pentsakor geratzen da une batez.

ENEKO

Jon deituko diot bezeroari, Jon Mirande idazle suizidaren omenez..., nahiz eta hark barbiturikoak hartu. Alejandra Pizarnik ere hartu zituen barbiturikoak, berrogeita hamar pilula, eta Caesare Pavese, eta Stefan Zweig-k ere. Idazleek beti estimatu izan dituzte barbiturikoak. Bueno, eta Marilyn Monroek ere bai. Baina, aldiz, altitude honetatik salto egitea..., ez dakit...

Behera begiratzen du berriro.

ENEKO

Hamalagarren pisua! Berdin-berdin aukera zezakeen, diot nik, hirugarrena. Hirugarrenetik salto egiten baduzu, agur. Bestela, laugarrena. Laugarrenetik hil egiten zara seguru. Baina Jon hamalagarrenarekin tematu da. Haren esanetan, historikoki oso jende gutxi aukeratu izan du eraikin bateko balkoia. Gilles Deleuze filosofoak zazpigarrenetik egin zuen. Orduan, Jonen harena bider bi: hamalau.

Berriz ere hasten da ibiltzen eta astia hartzen du bere buruari erantzun baino lehen.

ENEKO

Baina, baina..., nire uste apalean, gauza bat da norbere bizitzari fini ematea eta, beste bat, oso bestelakoa, garunak hona eta hara sakabanatzea. Baina, tira, azken finean, ni haren notarioa baino ez naiz. Eta bizitzaren amaitze baten testigantza ez ezik, garun-sakabanatze

batena ere eman behar badut, eman egingo dut, bai horixe. Izenarekin hasi. Suizidio mota honi suizidio ingelesa deitzen baitzaio. Suizidio ingelesa, *English suicide (isildu egiten da une batez)*. Magaluf-suizidioa ere esaten zaio, eta *hooligan*-suizidioa ere bai, edo, sinpleki, *balconing*. Eta, bestalde, ekintza bera ere badago. Jonek kalkulu matematikoa egin du (*atzamarrez ekuazio bat marrazten du airean*). Ekuazioan sartzen dira: altitueda, suizidaren pisua, haizearen indarra eta norabidea, eta jauziaren estiloa.

Erdira doa eta azpimarkatu egiten du atzamarrez lagunduz.

ENEKO

Adibidez, suizida: 65 kilogramo + klabado inbertsoa (holandarraren jauzia ere deitua) + seigarren solairua + 30 kilometro orduko hego-mendebaldetik... ostia ederra!

Ibili dabil pixka batean pentsamenduari une bat eskaintzeko eta atzera ere bueltatzen da erdira.

ENEKO

Suizida: 125 kilogramo + hamaika tirabuzoi kontrol gabe + hamabigarren solairua + 90 kilometro orduko ipar garbia... muinak lau haizetara!!!

Beste etenaldi bat egiten du terrazan barrena erdira itzuli baino lehen.

ENEKO

Edo aurrekoaren aldagai bat: hamaika tirabuzoi kontrol gabe eta ahuntza kanpandorretik estilo garbian... Edo ahuntza menditik behera kolpeka estiloan... Edo bonba Algortako portuan estilo jai-girokoan... Edo plantxazo mitikoan eta plof...! Edo...

Atzera ere ibili terrazatik.

ENEKO

Orduan, Jonen koordenadak: 82 kilo, klabadoa oinekin (alegia, klabado klasikoa) eta hamalagarren solairua. Ekuazioan haizeak bakarrik eragin dezake. Baina gaur ez da haizerik. Hemen dena dago bare. Red Bull-eko klabadista profesional batek zubi batetik nola, halaxe aukera gaur hark. Eta, ondo pentsaturik, zubi bat ere aukera zezakeen. Uretara amildu, Paul Celanen gisa Sena ibaian. Izan ere, hiri orok bere zubi fetitxe eta derrigorrezkoa du.

Eneko harat-honat hasten da eta erlojua begiratzen du.

ENEKO

Ordua da kasik. Heltzear dago Jon. Eta hemen prest dago dena: terraza baldintza ezin hobean, saltoan laguntzeko banketa eroso askoa, kronometroa... Casio HW 80FG. Behin ere ez dit hutsik egin, japoniar egiazkoa... Zer besterik...?

Batera eta bestera begiratzen du. Amildegirantz daramatza buru-begiak.

ENEKO

...Eta azken orduan bertigorik ez sentitzea, jakina. Eta ongi hausnartuta etortzea. Hori ere bai. (*Terraza erdian besoak zabalik barandan bermaturik*). Ze afera inportantea da. Afera da..., afera zera da... (*frantses kaskarrean*) *Il n'y a qu'un problème philosophique vraiment sérieux : c'est le suicide.*

Errepikatu egiten du astiroago, hitzak azpimarratzen, aurrekoan bezain kaskar.

ENEKO

Il n'y a qu'un problème philosophique vraiment sérieux : c'est le suicide. (*Hitzak azpimarratzen ere ematen du euskarazko ordaina*). Egiazki afera filosofiko serio bakarra dago: suizidioa. (*Etenalditxo egiten du esandakoa barneratzeko*). Albert Camus filosofoak esandakoa: suizidioa da afera filosofiko serio bakarra (*etenalditxo*). Filosofiaren galderarik behinena da aztertzea bizitzea merezi duen ala ez. Camus. Filosofiaren auzia.

Isilunea.

ENEKO

Latza, ezta? Latza! Camus bezalako filosofo batek hori esaten dizunean, zeure buruaz beste egiteko kriston gogo sartzen zaizu, baina kriston gogo. Filosofia axola bazaizu, behintzat. Kriston gogo!

Terrazako izkina batera mugitzen da.

ENEKO

Eta diot nik: heldu ote dakiok suizidioari, filosofiak dakarren afera serio bakarrari, muinera jo gabe, alegia, suizidatu gabe? Zeren eta Camus ez zen suizidatu. Eta suizidioaren gaineko filosofia sortu duten filosofo gehienek ez dute bere buruaz beste egin. Guy Debord suizidatu egin zen, ados, eta urtebete geroago Gilles Deleuze, esan dut, zazpigarren pisutik, ados, eta beste batzuk, baina gutxi. Hori bai, Deleuzena oso polita da, oso polita. Bere burua defenestratu zuen. Defenestrazioa. Latinez: *de* (nondik) + *fenestra* (leihoa), beraz leihotik. Erdi Aroan modan egon zen. *Fenestra*-tik saltoa egin eta defenestraturik hiltzen zinen. Eder-ederra.

Bat-batean telefono batek jotzen du, baina Enekok ez du berehala entzuten. Bere kabutan jarraitzen du.

ENEKO

Horregatik ere deitu dit Jonek, auto-defenestrazio baten testigantza jasotzera goaz. Keinua historiari.

Telefonoak jotzen darrai. Hamaikagarrenean hartzen du.

ENEKO

Alo? (...) Egun on, Jon! Hemen naiz, dagoeneko fenestran (...) Fenestran..., terrazan. Bertatik bistak izugarriak dira, Jon, izugarriak!!

(...) Toki ezin hobea da (...) Hasieran kili-kili egiten dizu barrenbarrenean baina ohitu egiten zara berehala (...) Eta eguna..., egun bikaina klabado *English* klasiko baterako, ez dakit zergatik esaten dioten *booligan*, hau klabado *gentleman* argia da, London klabadoa (...) bai (...) entzuten ari naiz (...) jakina (...) jakina, jakina... (...) zer? (...) zer diostazu? (...) baina nola da posiblea? (...) nola gaur ez zarela suizidatuko? (...) dena dago prest: terraza, kronometroa, banketa... (...) baina... (...) orduan, noiz? (...) nola ez gaur ez bihar ez inoiz? (...) nola hobeto pentsatu duzula? (...) baina dena dago prest, ordea... (...) den-dena, altitudea, haizearen indarra... (...) bai, bai... ari naiz entzuten, baina, bai, hitz egiten uzten dizut (...) nola hamaika arazo dituzula konpontzeko? (...) bai, ulertzen dut, baina... (...) baina ez al da suizidioa arazo guztiak kolpe bakarrean konpontzeko...? (...) bai (...) jakina (...) eta zer gertatzen da Gilles Deleuzerekin? (...) Nola nor? Gilles... (...) eta defenestrazioaren berpiztea? William Wallacen filmean bezala (...) bai (...) bai (...) Eta jada ez duzu Internacional Suizidista fundatu behar? (...) Nola hain zuzen ere...? (...) bai, baina, orduan... (...) barkatu... (...) ados (...) ez, ez nago kezkatu diruarekin (...) bai (...) dakort (...) agur (...) zeuk ere egun ederra pasa...

Aurrera darama begirada galdua.

ENEKO

Baia... (*Gorde egiten du telefonoa*). Hobeto pentsatu duela, dio. Hamaika arazo dituela... (*Etenaldia*). Hemen dena prest: hamalagarren solairua, haizea kilometro bat orduko, banketa, kronometroa...

Harat-bonat hasten da amorraturik.

ENEKO

Hau aukera galdua!

Bigarren buelta.

ENEKO

Hau tamala!

Hirugarren buelta eta erdian gelditzen da.

ENEKO

Hau zaputza! Salto egiteko gogoia ematen du. Honelaxe: abiada hartu eta salto!! Inbertso bat tirabuzoi bikoitzaz! (*eskuez lagundurik*) Inbertso bat tirabuzoi bikoitzaz!!!!

Baretuago baina poliki goraka.

ENEKO

“Internacional Suizidista”, zioen. Internacional Suizidista fundatuko dut”, zioetan Jonek. Eta zin egin dit oraindik eusten diola asmoari, baina orain garbi du horretarako bizirik egon behar duela, bizirik egon

behar duela suizidoaren pedagogia egiteko eta haren dimentsio soziala berreskuratzeko eta transmititzeko.

Orain, guztiz bareturik.

ENEKO

Ze suizidioa egintza intimoa da, baina, paradoxikoa badirudi ere, aldi berean ezagutarazia, partekatua, testigatua... soziala! Eta hor sartzen gara notariook. Baina ikuskizunik gabe. Zeren eta gaur egun, aro digital honetan, tamalez, suizidioa ikuskizuna ere bada. Webcam bat ezarri eta zuzenean konpartitzen duzu Instagramen nartsizismo ariketa deitoragarri batean. Eta joera hori poliki zabaltzen ari da, bai, “neure buruaz beste egiten dut maitemindurik nagoelako neure buruarekin”. Nartsizismo hutsa. Lehengo batean, tipo bat suizidatu zen zuzenean sare sozialetan eta, aurretiaz ez zekienez zenbat *like* lortuko zituen, programatuta utzi zituen hamaika mezu gu geu nartsizo hura hil ostean ere jasatera kondenatzen.

Gogoetan.

ENEKO

Suizidioa beste gauza bat da. Nola esan? Barne-dilema da, barne-galdera bati emandako barne-erantzuna, barne-bulkada... Barne... “Barne” jartzen baduzue, kasik edozer etor daiteke gero: barne-liturgia, barne-olgeta... baina beti aurretik “barne”... Eta, bestalde... bestalde, jakinarazia, partekatua, relatatua..., baina ez mundu digitalean, errealean soilik. Eta horri suizidio klasikoa deitzen zaio. Suizidio klasikoa.

Pentsatzen geratzen da.

ENEKO

Adibidez, suizidio klasiko petoa: Virginia Woolf. Poltsikoetan harriak sartzen ditu eta Ouse ibaira amiltzen da. Suizidio klasiko *de manual*: barne-esperientzia sozializatu bat. Suizidio klasiko urtarra, zehatzago suizidio klasiko ibaitarra (*arnasa hartzen du aldagai bat ekartzeko*). Beste suizidio klasiko urtar bat: suizidio klasiko itsastarra. Adibidez, Angel Ganivet idazle espainolaren suizidioa. Ganiveten suizidioa itsastarra da. Ez da idazle gisa aski ezaguna, baina haren suizidioa oso polita da, potxolada bat. Ipar Itsasoan burutu zuen. Rigako portutik salto egin zuen. Zoritxarrez, baina, itsasontzi batek jaso eta salbatu egin zuen. Baina, zorionez, itsasontzian zegoelarik, salbatzaileen despistea baliatu zuen berriro salto egiteko eta hantxe, hantxe burutu egin zuen. Ez da al ederra? Bada, hori itsastarra da. Egia da gehiago daudela ibaitarrak. Paul Celan, esan dut, klasiko ibaitarra. Baina Alfonsina Stornik ere klasiko itsastarra, Mar del Platan, Club Argentino de Mujeres-eko ronpeolasetik. Eta, gainera, ohar zehatza ere utzi zuen: “Itsasora bota dut neure burua”.

Bere kabutan jarraitzen du sosegaturik eta terrazan barrena ibiltzen hasten da.

ENEKO

Noski, hori beste bat da: nola sozializatu suizidioa? Suizidio klasikoetan ohikoak izan dira gutunak eta oharra. Violeta Parrak Nikanor nebari idatzi zion: “*No me suicido por amor. Lo hago por el orgullo que rebalsa a los mediocres. Me cago en los discursos de despedida*”. Eta tiro egin zion bere buruari. Dotorezia handiagorik!

Ibilera lasaian jarraitzen du, gaiak kateatuz.

ENEKO

Tiroa bera ere bada klasikoa klasikoen artean. Eta hor ere badaude adarrak. Klasikoa eskopetaz, klasikoa errebolberrez, klasikoa automatikoz... Van Gogh, Kurt Kobain Nirvanako liderra, Ernest Hemingway, Vladimir Maiakoski... Zer diostazue Maiakoskiri buruz? Birritan irabazi zion errusiar erruletari eta hirugarrenean galdu. Ederra, ezta? (*etenaldia*) Bestalde, badago beste modalitate bat, maitagarria oso, ingelesa oso, eta da suizidio klasiko shakespearearra: Romeo, Julieta, Casio, Bruto, Ofelia, Otelo, Cleopatra... Shakespearek maite zuen suizidioa eta hamaika pertsonaia suizidarazi zituen.

Gelditu egiten da.

ENEKO

Bereziki zein ederrak Romeorena eta Julietarena! Historian suizidio eder askoak egon dira. Empedoclesek salto egin zuen Etna sumendira bat egiteko naturarekin, Democritok gosez hiltzea erabaki zuen, Silvia Plath labeko gasak itoarazia... zenbat edertasun kabitzen diren suizidio batean!

Amildegirantz begira.

ENEKO

Hain dira ederrak ze orain eta hemen salto egiteko gogoia ematen duen!!!! Honela!!!!

Gogotsu.

ENEKO

Honela! Orain eta hemen...

Bat-batean zalantzatan.

ENEKO

Nik... Ez, ez... Baina, bestalde... Ezta pentsatu ere!!

Zalantzatan oraindik.

ENEKO

Beharbada, ez da horren zentzugabea. Egia esan, ez zait lehenago burutik pasatu baina..., gainera, hemen dena dago prest, modu horretan deus ez litzateke alferrik galduko. Orduan... zergatik ez?

Atzera egiten du ikararen ikaraz une batez.

ENEKO

Ez, beroaldia izan da... Ni ez naiz halakoa... Beroaldi hutsa... Hotza naiz, kalkulatzailea, notarioa... Egiazki suizidio ederrak izan dira gizateriaren historian. Ederrak eta eredugarriak! Egia esan, denak, den-denak. Baina gauza bat da... eta beste bat... Baina, bestalde, hemen dena dago prest... Kronometroa. Banketa. Terraza eder hau. Iparorratz mitiko hau. Altitudea. Haizearen indarra... Gaur baino haize egokiagorik nekez! Pena litzateke hau guztia ez aprobeztatzea. Gainera, froga nezake tirabuzoi bikoitzeko inbertso *english* hori.

Pizten berriro eta eskuez lagundurik.

ENEKO

Inbertsoa tirabuzoi bikoitzaz estilo Picadilly Circus. Neure ikutua eman, neure ikutu artistikoa. Zeren eta suizidio ekintza artistikoa ere bada, performancea, artea, literatura ere zeharkatzen duena eta pentsamendua bera, batez ere XX. mendean Jainkoa hil ostean. Hil da Jainkoa! Hil da Jainkoa! Eta Jainkoa hilik, ez dago aitzakiarik ez kontsideratzeko suizidioa! Barra libre! Hil da Jainkoa! Barra libre! Debord, Deleuze, Walter Benjamin... Hil da Jainkoa!

Telefonoa jotzen hasten da.

ENEKO

Hil da jainkoa! Suizidio libre eta gratuito!

Ez dio kasurik egiten.

ENEKO

Hil da Jainkoa!! Joder, telefonoa! Hil da Jainkoa... Kaka zaharra!!!

Ateratzen du mobila poltsikotik baina ez du begiratzen nor den.

ENEKO

Jon izan behar da. Ez dut begiratuko. Eta esaten badit damutu dela eta suizidatu nahi duela? Orain? Berandu da, galdu duzu tren hori. Orain neu ari naiz historia egiten, ez naiz jada errelatorea, egilea naiz, protagonista.

Telefonoak jotzen jarraitzen du.

ENEKO

Joder! Zer egin behar dut...? Tira, hartuko dut... Alo? Nor da? A, zu zara... (*Ahapeka argitu aldera, telefonoa estaltzen*) Kabezerako psikiatra da, hau beti momenturik egokienean. (*Berriro telefonoz*) Kaixo, zer moduz? (...) Lasai, une batez pentsatu dut bezero bat zinela, bezero astun bat. (...) Esan... (...) Nola hitzordua genuela? Ba sentitzen dut, ahaztu zait

erabat. (...) Gainera... gainera... gainera, orain ezin dut... ze... ze...
ze suizidatzera noa...

Mobila tapatzen du eta barre egiten du, garaipen bat ospatu beharko balu bezala.

ENEKO

Bai..., hemen jarraitzen dut... (...) Nola nola bururatzen zaidan esatea psikiatra bati suizidatu behar dudala? (...) Zer esan behar dizut, ba? Esan behar dizut hamalagarren solairuko fenestra eder honetara etorri naizela hiria begiztatzera? Nahiagoko zenuke hori? Ez, ezta? (...) Egia beti, esan ohi duzu, mingarria den arren. (...) Bai... bai... ulertzen dut... (...) Nola neurekoi nartsizista hutsa baino ez naizela? (...) Nola ausartzen zara? (...) Nola ausartzen zara hori niri esatea, banketan zutik nagoelarik jauzi klasiko *British* bat egitera den honi? (...) Hamalagarrenetik..., hamalagarrena bai (...), barkatu...? (...) Nola anomaliak ditudala korteza prefrontaleko, hipocanpoko eta hipotalamoko neurotransmisio serotonergikoan? (...) Nola ti-ta batean konponduko didazula ajusteak egiten oxitocinan eta feniletilaminan? (...) Baina ez al dakizu suizidioa dela afera behinena? (...) Jakin ere ez dakizu zer den magalufatzea, Magaluf erako suizidioa, *balkoning* egokitua... (...) Bai (...) Baina... (...) Nola deprimiturik nagoela? Eta zu? Nola zaude zu? Ordaindu egingo zenuke Internacional Suizidistan sartzeagatik!! (...) Internacional Suizidistan! (...) Baina ez zara inoiz sartuko!! (...) Eta ezin dut jarraitu zurekin denbora galtzen, ze orain denborak berak beste dimentsio bat hartu baitu (...) Agur!!! Eta ez deitu berriro!!

Keinua egiten du mobila eraikinetik behera botatzeko, baina gelditu egiten da azken momentuan. Baretu egiten da, arnasaldia moteldu.

ENEKO

Gorroto dut nagusitasun morala etengabeen erakusten dizun jendea. Ez gaude Aintzinako Erroman. Badakizue? Aintzinako Erroman, orain 2.000 urte, ezin zen jende guztia suizidatu. Ez. Hiritarra bazinen, eskubidea zenuen zeure buruaz beste egiteko. Baina esklabua edo soldadua bazinen, debekaturik zenuen. Eta, gaur egun, psikiatra bazara, ahal duzu; baina ez bazara psikiatra, ezin duzu, falta zaizkizulako oxitocina eta fenile-ez-dakitzer! Popatik!!

Zentratu egiten da.

ENEKO

Tira, zertan ari nintzen? A bai, neure suizidioa. A ze poza! Zein zorientasun-aldi hau baino aproposagorik mundua boluntarioki uzteko? Dena dago prest. Altitudea... haizerik eza... 400 gramo gehiago gosaldutik ondoren... inbertsoa tirabuzoi-bikoitzaz hamalagarren honetatik (*gora begiratzen du*) eta gainean, gainera, txoritoki hau, zeinari deituko diodan *pleno al 15*, zeren eta suizidioa suizidarentzat eternitatearen aldeko aukera hirukoitza baita, non 1, X edo 2 aukeratzea ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula.

Animaturik jarraitzen du.

ENEKO

Gainera, ez al zaigu bizitza hau suizidio-kolektibo bat bilakatu? Gure zibilizazioak auto-suntsiketarako martxa berdea jarri du martxan, non bakteriak bakarrik geratuko diren bizirik planeta osoan. Desagertzera goaz, geologoek badakite aspalditik, badakite desagertze batera kondenaturik gaudela. Orduan, bizitza suizidio zibilizatorioa den honetan, norberaren suizidioak inoiz baino zentzu handiagoa du. Ekintza kamikaze arduratsua talde-harikiri honen baitan. Ekarpem ekologiko hutsa. Eta, beraz, proposamen politiko duin bakarra.

Etenalditxoa egiten du eta pozarren segitu.

ENEKO

Eta, beraz, jakinarazi beharrekoa. Errelatatu beharrekoa. Partekatu. Suizidio klasiko soziala. Soziala. Soziala... Kaka-zaharra!!

Mobila ateratzen du poltsikotik eta zenbaki bat markatzen hasten da.

ENEKO

Eskerrak!!

Pixka batean itxaron eta norbaitek erantzun dio bestaldean.

ENEKO

Nerea, egun on (...) Bai, Eneko, Eneko Azkune, notarioa, kompetentzia, kar, kar. (...) Ederto, bai, ondo? (...) Etxean ere denak ondo? (...) Entzun..., nola esan..., notario bat behar dut... (...) Bai, jakina badakidana notarioa naizena (...) Bai, hori da, notarioa notario bila, kar, kar (...) Ez, ez, oraintxe bertan izan behar da (...) Bai, badakit alde zurretiko zitarekin lan egiten duzula, baina presakako kontua da (...) Mesede handi bat (...) Bai, orain (...) Bi ordu gutxienez? Ados, bi ordu barru (...) Lasai, lasai, bertan kontatuko dizut (...) Ez duzu ezer ekarri behar, dena dago prest (...) Apuntatuko duzu helbidea? (...) Bai, apuntatu mesedez: Artola 21, hamalagarrena, B departamentua (...) Hamalagarrena (...) Bai, igogailua dago, gero arte...

AMAIERA